



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Zientzi Politikarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Dirección de Política Científica

EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2014ko abenduak 17koa, 2014-2015 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko ekainaren 10eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituen.

Agindu horren 17.artikuluaren arabera, laguntza berriak ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakar eta espresuaren bidez gauzatu da, ebaluazio-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berariazko Aholku Batzordeen ebaluazioa eta Ebaluazio-Batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzak eta dagozkien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2014-2015 ikasturterako.

Kontratu horiek 2015eko urtarrilaren lelik abenduaren 31ra arteko aldia hartuko dute eta onuradunak 28.000 euro gordin jasoko ditu urtean.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, arloak eta lehentasuna zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 16. artikuluko 3. atalak zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduaren 17a.

ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea